Indusi (1) auzunearen gainean dagoen haitzaren azpian Olabarriko San Frantzisko ermita dago, herriak San Fraisku deitzen diona. Indusi ibaia ermitaren ondotik doa. Zubia zeharkatu baino ez, Olalde auzunea eta Olabarriko burdinola zahar garrantzitsuaren hondakinak ikusido ditugu eskuinean. Honen eta eraiki berri dagoen etxe baten artetik iragan eta zementuzko bidetik ekingo diogu beste zubi bat aurkitu arte; han Urkiolako Parke Naturalaren informazio grafikoa dakarren kartel adierazgarri bat aurkituko dugu.Zubia igaro eta zementuzko bidetik aurrera egingo dugu aldapan gora, aldatzaren amaieran geure aurre-aurrean daukagun Gibiltar baserriraino. Baserria ezkerrean utzi eta beherantza hasiko gara, kobako erreka txikiraino. Berehala Jentilzubira iritsiko gara. Metro gutxira, zubiaren Hegoaldean, gure eskuinean, Axlor izeneko aterpe naturala dago, On Jose Migel Barandiaranek 1932. urtean aurkituriko arkeologia-aztarnategia. Ikusiko dugu sarrera orain burdinesi batekin babesturik dagoela.



*Jentilzubi*

Jentilzubiren arkupetik igarota, (2) bidean aurrera egin eta Baltzolako kobarako sarreretariko batekin egingo dugu topo; bere gainean Kobagane mendia. Guk aldaiaren eskuin aldetik jarraituko dugu kobara beste sarrera batetik sartzeko, bidetik bost minutu ingurura aurkitzen den hartatik, alegia. Ahora heldu eta 8 metro inguru jaitsiko gara, sarrerako atari handiaren erdian kokatzeko. Hemendik geure ezkerretara zuzendu eta esku-argi baten laguntzaz, gorago aipatu dugun lehenengo ahotik irtengo ginateke. Guk eskuinean geratu zaigun kobako hormatik jarraituko dugu, pasabide txiki bat zeharkatuko eta irteeran, ezkerretara, agerrune batean Behikobea bezala ere ezaguna den Abaroko tunelera eroango gaituen zidorra aurkituko dugu. Tunela zeharkatu eta aldapa txiki bat igon ondoren, zidorra ibaiaren paralelo doa sigi-siga agerrune batean utzi arte. Ibilbidean zehar aurrera eginda, lekurik aproposena aukeratuko dugu erreka igaro eta aldai nagusia hartzeko; gero ezkerretara jarraituko dugu aldai horretatik eta aurrerago berriro zeharkatuko dugu erreka. Laster hur-hur ukanen ditugu Baltzola auzunea osatzen duten baserriak. Hemendik San Lontzo ermitarantza igongo dugu harritxirrizko aldaitik; ermitatik hur ere Andre Mariaren irudi bat barruan daukan haizpe bat dago iturri baten ondoan. Hona heltzerakoan, Indusiko San Frantzisko ermitan atera garenetik berrogeita bost minutu inguru egingo genituen.

Aipatu haizpea ezkerretara utzi eta bidea berrasi baino ez, bidebanatze batekin egingo dugu topo: (3) ezkerreko aldaiak Olarretako lepora eroaten du; guk, bada, eskuinekoa hartuko dugu Garaio mendira joateko. Hartu dugun aldaitik aurrera ekinda, Baltzolako baserriak atzean utzita, berriro jaitsiko gara errekara; hona heldu aurretik, Indibiti ingurura eroango gintuzkeen aldai bat utziko dugu ezkerretara. Erreka igaro eta igoten hasiko gara aldai nagusitik gora agerrune batera iritsi arte. Aurrean Olabarriako txabola daukagula, eskuinean bidea hirutan banatzen da; guk eskuineko aldaia hartuko dugu Lexartzu mendia ezkerretara daukagula eta aurrerago, hemen ere ezkerreko aldetik, Ormeta ikusi ahal izango dugu. Aurrera zenbat eta gehiago egin, aldaia hainbat eta erosoago bihurtuz joango zaigu, aurrean Garaio mendia ukan arte. Aldaia utzi eta geure ezkerrean jaiotzen den zidor batek tontorrean utziko gaitu berehala. Tontorrera ailegatzen garenean 36 minutu inguru iragango ziren Baltzolako Andre Mariaren haizpe ondoan dagoen iturrian irten ginenetik.

Garaioko tontorraren gainean (4) dagoen mendiontzia eskuinean utzi eta gailurraren parean Mendebaldeko norabidea hartuta emango diogu jaitsierari hasiera. Kareharri solteak eta otea dagoenez, ibilbidearen tarte honetan kontu gehiago izatea aholkatzen da. Guk beherantza egingo dugu, baina orain hegomendebaldeko norabidean, aurrean Gibili mendia ikusten dugula eta eskuinean Baltzolako kobaren irteera beha dezakegula. Aurrean pinadi baten itxidura eta bere paralelo aldairaino eroango gaituen zidor bat; aldaia eskuinetarantza hartuko dugu; laster, Indusi eta Baltzola lotzen dituen bidean egongo gara. Beherantza jarraituko dugu eta kobako sarrera atzean utzi ondoren, ezkerrean Jentilzubi gainean kokatzen den zidor bat ikusiko dugu; hortik joanda Axlor kobara helduko gara. Gero zidor beretik segituko dugu zurezko itxidura batera heldu arte; hemendik amaierara bidaiaren hasieran egin dugun ibilbide bera da, baina alderantziz. Jaitsieran, Garaiotik Indusira, 46 minutu inguru egingo genituen. Gustira 2 ordu eta 7 Km. gutxi gora behera.



*Gibiltar baserria Jentilzubitik*

